


# «Gure aurkako salaketak muntaia hutsa dira»

Maider Alustizak 27 urte ditu. Santo Tomas Lizeoan aritu eta diseinu ikasketak egin ondoren, duela bost urte Udaletxean hasi zen lanean Herri Batasuna alderdiaren idazkari bezala. Gaur egun Euskal Herritarrok taldeko zinegotzia da.



**Maider Alustiza**

**«Auditz-Akularrekoa bezalako operazioekin ez da etxebitzaren arazoa amaituko»**

**Eztabaida handia sortu da Bellas Artes eraikinean egin nahi den hotela dela eta. Aukerarik ba al dago egitasmoa atzera bota eta eraikina bere horretan mantendu dadin?**

Horrelako egitasmo bat atzera botzatzea nahiko zaila izaten da. Hala ere, ez lukete bota behar. Bellas Artes lehen mailako ondareztat jota dago. Udal Gobernuak adierazi duenez, eraikina deskatalogatu nahi da hotel berria eraikitzeko. Hori egingo balitz, babestuta dauden beste hainbat eraikinetan gauza bera egiteko bidea irekiko litzateke, eraikin horiek erabat esku pribatuen esku utziaz. Aurrekari arriskutsua litzateke, beraz. Bestetik, Udal Gobernuak erakutsiko luke hiritarren iritzia ez duela kontuan hartzen.

Gainera, alternatibak badaude. Gauza guztien gaintik, interes publikoari begiratu behar zaio Bellas Artesen zer-bait eraikitzeko.

**Zer iruditzen zaizu Udal Emakume Sailak eguneroko udal politikan duen garrantzia?**

Aurreko legealdian zenbait pauso eman ziren: emakumearen zinegotzigoia eta emakumearen kontseilua sortzea, adibidez. Baina legealdi honetan dagoeneko

**Iker Marin. Argazkiak: Imanol Otegi.**

**Euskararen normalizazio plana Uztailaren 18an onartu ondoren, martxan jarri al da dagoeneko? Udaletxeko alderdi guztiek baiezkua eman zioten planari, PPK izan ezik. Zer esan nahi du horrek EHrentzat?**

Normalizazio plan honen helburua da Udaletxeko langileek euskara ezagutu ezezik, modu aproposan erabiltzea. Hala ere, gure taldetik baiezkua eman genion plangintzari, gutxieneko baldintzak besterik ez baititu betetzen. Oraindik plana ez da martxan jarri, baina ikasturte berriarekin batera lehen urratsak emango dituela espero dugu.

PPren ezezkoari buruz, argi dago hemen erakutsi dutela bere politika zein den: euskararen aurka joatea. Gainera,

gai honekin, Udal Gobernuaren barruan dagoen desadostasuna argi geratu da.

**Auditz-Akularren 3.000 etxebizitza egin nahi ditu Udal Gobernuak. Hala ere Altzako bizilagunek bere desadostasuna azaldu dute planarekiko. Nola dakusazue EHtik arazo hau?**

Auditz-Akularren makro-operazio izugarria egingo dute. Hasteko, inguru horretako berdegune guztia desagertuko da, horrek dakarren ingurugiro arazoarekin. EHtik ez dugu onartzen egingo den egitasmoa. Akats handiak egon dira gai honen inguruan, Altzako bizilagunek ez dute erabakietan parte hartu eta tramitazioa azkarregia izan da. Etxebizitzaren arazoa ez da horrelako makro-operazioekin amaituko. Arazoari buruz azterketa sakona egin behar da, eta orain arte ez dugu horrelakorik ikusi.

## «Donostia eskuinekoa eta espainola bihurtu nahi dute»

zinegotzigoa atzera bota dute. Udal Gobernuari dagokionez, ez dago sensibilizaziorik gai honetan. Borondate politikoa erakutsi eta aurrekontu gehiagoren bidez, emakumearen gaiari merezi duen garrantzia eman behar zaio.

**Zein balorazio egiten duzue PSE-EEk eta PPK Udal Gobernuan egindako lanaz? Gobernu kontinuitista al da? Aukerarik ba al dago EA eta EAJrekin oposizio bateratua egiteko?**

Aurreko legegaldian egindako akatsak areagotu egin dituzte. Politika bera egiten ari dira, baina legealdi honetan beren jarduna oraindik eskuinerago daramate. Donostia hiri eskuindarra eta espainola bihurtu nahi dute. Honez gain, egiten diren proiektuetan ekimen pribatuari ematen zaio lehentasuna, eta ez dute hiritarren iritzia kontuan hartzen.

Bestalde, gu EA eta EAJrekin elkarlenerako prest gaude. Zoritxarrez une politikoak agintzen du, eta horregatik askotan zailtasunak ditugu elkarrekin aritzeko.

**Abuztuan eginiko manifestazio baten ondoren, Maria San Gilek salaketa bat ezarri zuen zure eta taldekidea duzun Miren Zinkunegiren kontra. Diotenez, Maria San Gil mehatxatu zenuten. Zertan da salaketa hori?**

Maria San Gilek guri eta atxilotuta dagoen gure idazkariari, Antxon Olokiegiri, jarri digu salaketa. Udalak beste salaketa bat ezarri du egun horretan gertatutakoa argitzeko, baina azken finean, hiruren aurka jarritakoa da. Fiskalak kereila kriminala ezarri du Miren eta bion aurka.

Salaketa hauek muntaia hutsa dira, eta ondo prestatutako estrategia baten



Maidier Alustizaren ustez, oso larria litzateke Bellas Artes eraikina deskatalogatzea bertan hotela eraikitzeko.

barruan daude. PP eta Mayor Orejaren estrategia besterik ez da, ezker abertzalea kriminalizatzeko. Gainera Udala ere PPren jokoan sartu da, salaketa ezarritz. Badakite guk ez genuela horrelakorik oihukatu. Juridikoki, itxaron egin behar dugu, epaileak kasua Espainiako Audientzia Nazionalera eramaten ote duen ikusi arte. Madrilerako bagoaz, terrorismo delitu batengatik deklaratu behar dugu, eta hori gertatzen bada, kartzelara joan gaitzeko edozein momentutan. Gai hau dela eta jaso dugun presio mediatikoa izugarria izan da.

**EHren ustez, zein da Euskal Herriak bizi duen egoerari irtenbi-**

**dea emateko giltza?**

Herriari hitza eman behar zaio, eta herriak izan behar du erabakia hartuko duena. Udalbiltzak ere garrantzi handia du, euskal nazioa eraikitzeko dugun erakunde bakarra baita. Beste alderdietatik gauzak nahiko argi daude. PPK bide poliziala aukeratu du, eta bide horretatik ez goaz inora. EA eta EAJk aukera egin behar dute: edo Euskal Herriaren alde egiten dute edota Espainiaren alde. Lizarra Garazi eta Udalbiltza blokeatuta dituzte, eta biak desblokeatu beharko lituzkete Euskal Herriaren aldeko apustua egin eta guztion artean gatazka politiko honi amaiera emateko.